

**A.15.1. SAUTXI****A.15.1. SAUTXI**Azalera: 49.596 m²**I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak**

Eremu berri hau Arau Subsidiarioetako 2. Bizitegi lurzoru Urbanizagarriaren Plan Partzialari dagokio, eta hango erabakiak dokumentu honetan sartzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Eguno eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Ezaugarriko erabilera eremuan, Egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua. - Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Esparru hau Planeamendu Gehituko Eremu bati dagokio, eta horren ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da:

API 08 SAUTXIKO PLAN PARTZIALAAzalera: 49.596 m²

Planeamendua:

* Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 1994ko uztailaren 26an egindako bilkuran, "Sautxi II. Sektorearen Plan Partzialari behin betiko onespena eman zion; 1995eko abuztuaren 1eko 144. zenbakiko GAOan eta 1995eko abuztuaren 21eko 158. zenbakiko EHAAan eman zen argitara.

* 1999ko urriaren 29an egindako bilkuran behin betiko onespena eman zitzaion SAUTXI 2. Bizitegirako Lurzoru Urbanizagarriaren Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespena eman zitzaion; 1999ko azaroaren 15eko GAOan eman zen argitara, 218. zenbakidunean.

* Udaltzatzen, 2000ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, SAUTXI 2. Bizitegirako Lurzoru Urbanizagarriaren Plan Partzialaren garapenerako Xehetasunezko Azterlanaren testua zuzentzea erabaki zuen; 2000ko uztailaren 14ko 134. zenbakiko GAOan argitara emanda.

Eremuaren zonakatze xehatuko baldintzak, Bizitegi erabilera duen SAPUR 2-Sautxi Sektorearen Plan Partzialeko "Zonakatzea. Erabilera xehatuak. Sistema Orokorrak eta Izaera Lokalekoak. Bide-sarearekin lotutako Zuzidura Erreserbak" P.4 planoan xedatutakora egokitu beharko dira.